




ELKARBIZITZA LANTZEN

Eskolan elkarbizitza proiektuarekin aurrera jarraitzen dugu. Ikasle guztien artean elkarbizitza zer den adostu dute: "Ikas komunitateko kideen arteko harremanak errespetoan, berdintasunean eta tolerantzian oinarritutako erlazioan eraikiko dira"

Bestalde ikasleek elkarbizitzako marrazkiak egin dituzte, eta guztien artean Andonik eta Ikerrek egindakoa aukeratu dute eskolako logoa izateko.



IHAUTERIAK 2010




HAUR HEZKUNTZA

HHko HAURRAK ELKARBIZITZA LANTZEN

HHan Elkarbizitzaren Urteko Plana aurrera doa. Sentsibilizazio fasean gure geletan hainbat ekintza martxan jarri genituen, hauek dira:

1) "Koxmek min hartu du" Koxme gure hartz maitagarria da. HHko ikasleak psikomotrizitate gelan elkartu ginen eta Koxmeren ipuina entzun eta gero tiritak ipini eta sendatu genuen.



2) Hormairudi bat egin genuen psikomotrizitate gelan ateratako hitz polit eta argazkiekin.

3) 3,4 eta 5 urteko haurrekin geletan bi ipuin landu genituen: « Korokota » eta « Zikoina eta txerrikumea »




1. ZIKLOA


HONDAKINEN TAILERRA

Lehenengo eta bigarren mailako ikasleek hondakinen eta birziklapenaren tailerra egin dute. Egunero erabiltzen den papera, plastiko eta beiraren kontsumoa murriztearen garrantziaz jabetu dira. Ahalik eta gehien birziklatzea ezinbestekoa dela konturatu dira.

Ekintza desberdinak egin dituzte: hormairudiak, hondakinez egindako jostailu bat, kaleetako zarama bilketa sistema ezagutu eta hondakin desberdinak bereiztu eta sailkatu. Kanpaina horren barruan plastikozko poltsa baten trukez, telazko poltsa bat oparitu diete.



**PLASTIKOZKO
POLTSA
GUTXIAGO =
CO₂ GUTXIAGO**



2. ZIKLOA

ANIMALIAK IKASTEN ORDENADOREEKIN

Hirugarren mailako ikasleok, animaliei buruzko lana egiten ari gara informatika gelan.

Gero hormairudiak egingo ditugu: animalien argazkiak, sailkatu...

Horrela gauza mordoa ikasten dugul! Hemen ikus ditzakezue adibideak:



- Obiparoak dira.
- Biriken bidez arnasten dute.
- Gorputza lumaz estalita dute.
- Bi hanka eta bi hego dituzte.
- Enara, usoa, kurbiloa...



- Bibiparoak dira.
- Gorputza ilez ezalita daukate.
- Gehienek lurrean, lau hanketan dabiltzate.
- Biriken bidez hartzen dute arnasa.
- Zaldia, saguzarra, tximinoa, balea...



ERMUA EZAGUTZEN



Joan den hilabeteen 4. mailakoak, Isabel Prietoren laguntzaz, HIRI-GINTZA TAILERRA egin genuen.

Bi saiotan, antzinako Ermua eta gaur egungokoaren arteko diferentziak aztertu genituenen. Hirugarren saioan irteera bat egin genuen. Gelan ikasitakoa insitu ikusteko.

3. ZIKLOA


6. MAILAKOAK ASTEBETE INGELESEZ



Pasa den otsailean, 6. mailakoak astebete osoa pasa dugu ingeleseko barnetegi batean. Primeran egon gara, eta irakasleak ingelesak zirenez ingelesez hitz egitea baino beste erremediorik ez dugu izan, beraz oso interesgarria izan dela uste dugu. Lagun berriak ere egin ditugu, beste eskola batzuetako neska-mutilak ere egon baidira. Hiru taldetan banatu gintuzten guztiak nahastuta (Oceanía, Amerika eta Europa) eta bakoitza bi irakasleren ardurapean egon da. Atibitate gehienak, jolas eta ekintza aktiboen bidez izan dira, beraz ez dugu aspertzeko denborarik izan.

5. MAILAKOAK PLANETARIOAN BISITARI


5. mailakoak unibertsoaren gaia lantzen ari garenez Durangora irteera egin dugu. Egun batean bertako planetarioa bisitatu genuen, planetak eta galaxiak ikusi eta hauen ezaugarriak ezagutu genituen. Bigarren egun baten, irakasle eta guraso batzuen laguntzaz, gauzez egin genuen planetariora bisita. Teleskopioarekin ilargia aztertzen egon ginen. krater mordoa ditu eta hauen barruan mendiak daude. IKUSGARRIA!



ASMAKIZUNAK

Gazta bezain borobila
eta inor ezin da er-
dian eseri.
Zer den badakizu?

Putzua
Alba




Lurreko animalia handiena,
letaginetan du marfila,
azpian harrapatzen duena,
berehala utziko du hila.

Elefantea
Nagore

Horia naiz eta gauzak
crosteko balio dut
Zer naiz?

Yasmina




Denak ni zeharkatzen nau-
te, eta nik ez dut inor ze-
harkatzen. Denak niregatik
galdetzen dute, eta nik ez
dut inorengatik galdetzen.
Zer naiz?

Kalea
Leire Hurtado

Dituenak bistan ditu,
ikusten ez dituenak
beharko ditu.
Zer diren badakizu?

Betaurrekoak
Nagore





Andere bat oso damatxoa
dena beti autoan joaten da
eta beti bustita doa.
Zer den badakizu?

Mingaina
Yanitza

Neguan biluzik
eta udan
arropaz beteta
Zer naiz?
Zuhaitza

Leire Castelos




Bi anaia bikiak gara;
Gu aurrean jarrita, hobeto
ikusiko dituzu gauza guz-
tiak. Zer gara?


Betaurrekoak
Leire Castelos

Zer dago PARIS erdian?

R letra
Yasmina



ZEIN DA ZURE BIZITZAKO AMETSA?



XABIER SUMENDIAK AZTERTU

Sumendietara
joan nahi dut
eta laba eta
magma aztertu
nahi dut



NAHIA HODEIAK ESKUEKIN UKITU

Suabe suabeak
eta goxo goxoak
izan behar dira.

JIHAD MUNDUARI BIRA EMAN

Bidaia tzea
gustatzen
zait, eta gai-
nera horrela
mundu guztian
lagunak izango
nituzke.




GARAZI MUSIKAKO IZARRA

Oso ongi
abesten dut,
eta abeslari
ezagun bat
izatea gusta-
tuko
Litzaidake.



ALAITZ IR A LA LUNA

Me gustaría lle-
gar hasta la lu-
na. Cuando em-
piezas a andar
parece que es-
tas flotando.



ROBERT APARECER EN LA TELE

Me gustaría
aparecer en la
tele. Además
mi madre se
alegraría al
verme